Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politiketako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Políticas Sociales

2018-2021

GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUEN MAPAREN EBALUAZIOA

2022ko urtarrila

Plangintza atala

1. SARRERA

2008ko Gizarte Zerbitzuen euskal legeak agintzen du, bere 35. Artikuluan, Eusko Jaurlaritzak lau urtean behin Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa egin behar duela, foru aldundiekin eta udalekin koordinaturik. Eta Plan horren barne Gizarte Zerbitzuen Mapa egongo dela. Orain gutxi arte indarrean egon den Planak 2016-2019 urteak hartu zituen. 2021an Eusko Jaurlaritzak honen ebaluazioa aurkeztu zuen, baina momentuz ez du aurkeztu ondorengo Planik.

Gipuzkoari dagokionez, Foru Aldundiak badu eskarmentua Gizarte Zerbitzuen Mapak egiten eta garatzen. Hauek dira orain arte onartutakoak:

I. Mapa: 2002-2005
II. Mapa: 2008-2012
III. Mapa: 2015-2017
IV. Mapa: 2018-2021

Azkenengo Mapa honen ebaluazioa egin nahi dugu txosten honetan, baina hasi baino lehen komeni da hiru aipamen egitea, gero errepikatzen ibili beharrean:

a) 2020tik jasaten ari geran pandemiak eragin nabarmena izan du Maparen garapenean eta ezarritako helburuen lorpenean, beti ere kalterako. Batetik, Departamentuak bestelako lanak hartu behar izan dituelako bere gain. Bestetik aurrekontua ezin izan delako kudeatu era normalean. Eta, garrantzi handiena duena, arreta zerbitzuak izan dituzten arazo larriekin ez zuen zentzurik aldi berean plazak handitzea.

b) Gainera, pandemiak eragina izan du demandan: zerbitzu batzuen itxaron zerrendak (adinekoenak) gutxieneko historikoetan daude gaur naiz eta beharrak ez diren gutxitu. Egoera horretan sarea handitzeko erabakiak hartzea ez da erraza.

c) Hori dela eta, salbuespen bezala, Departamentuak erabaki du Mapa honen indarraldia 2022ra luzatzea, bertan ezarritako helburu batzuetan motz gelditu garelako, eta 2023tik aurrera garatzea hurrengo Mapa, Eusko Jaurlaritzak ordurako berea onartuko duen itxaropenarekin.

Beraz, ebaluazio hau behin-behinekoa da, Mapa indarrean dagoelako.

2. 2018-2021 EMAITZAK: SORTU DITUGUN PLAZAK

Zati honetan Aldundiaren ardurapean dauden zerbitzuetako plazen eboluzioa aztertuko dugu. Guztira, **869** plaza berri **garbiak** sortzea zen Maparen helburuetako bat. 2021 amaitzean **559** lortu ditugu, hau da, betetze maila **%64koa** da momentu honetan. Plaza gehienak 2018 eta 2019 bitartean sortu ziren.

Zerbitzu eta kolektibo desberdinen ikuspegitik aztertzen badugu, emaitzak hauek dira:

	2018 - 2021	Helburua	Lorpen %
Eguneko zentroak			
Adinekoak. Lanegunak	3	23	13
Adinekoak. Astebru-jaieg.	27	28	96
Desgaitasuna. Lanegunak	76	42	181
Osasun mentala	0	29	0
Adingabeak	18	18	100
Okupazionalak	10	25	40
Gizarteratzea	26	34	76
Gaueko harrera-zentroak			
Gizarteratzea	4	7	57
Egoitza-zentroak			
Adinekoak	87	360	24
Soziosanitarioak	48	35	137
Desgaitasuna. Egoitzak	31	37	84
Desgaitasuna. Etxebizitzak	44	51	86
Osasun mentala.Egoitzak	25	57	44
Osasun mentala. Etxebiz.	5	32	16
Adingabeak	50	27	185
Adingabeak. Larrialdiak	40	5	800
Bazterkeria. Kronifikatuak	3	24	13
Gizarteratzea. Egoitzak/etxe	37	26	142
Indark. Matx. Bikt.	25	9	278
Guztira	**559**	**869**	**64**
EZ oinarrizko plazak	**27**	**28**	**96**
Oinarrizko plazak	**532**	**841**	**63**

Laburtuz, **eguneko zentroetan** desgaitasunari zuzendutakoak hasi dira gehien (helburua ia bikoiztu egin dugu) eta buruko gaixotasunekoak berriz bat ere ez; adinekoenak asteburuetan gehitu ditugu baina lan egunekoak ia ezer ez. **Egoitza eta etxebizitzetan**, helburuak gainditu ditugu soziosanitarioan, gizarteratzean eta indarkeriaren biktimentzako plazetan, eta motz gelditu gera adinekoen eta buruko gaixotasuna dutenen egoitzetan.

Emaitza hauekin garbi dago 2022an non jarri behar den ahalegin berezia, ez beste zerbitzu batzuen hazkundea mugatuz, baina hazkunde orekatuago bat lortzen saiatuz. Horretarako demandaren eboluzioa izan behar dugu bereziki kontuan, eta osasun egoerarena ere bai.

3. NABARMENTZEKO PROIEKTU EDO JARDUERA BATZUK

Mapa honen indarraldian eman dira balio kualitatiboa duten ekimen edo lan ildo batzuk, plazak sortzeaz gain, eta ondorengoak azpimarratuko genituzke:

- **Eibarren sortu den zentro soziosanitario (URSS) berria**. Naiz eta pandemiak ez digun oraindik bere jatorrizko erabilera ezartzea (COVID zentro bezala funtzionatzen duelako oraindik ere), Gipuzkoako mendebaldean zerbitzu hau sortzeak ia bikoiztu egiten ditu lehendik genituen plazak eta lurralde oreka hobetu du.

- **Desgaitasuna eta gizarteratzeko zerbitzuen deszentralizazioa bultzatu da,** oraindik desoreka badago ere. Adibideak dira Gautenak eta Goyenechek kudeatzen dituzten zentro berriak (Azpeitia, Pasaia, Elgoibar).

- **Adingabekoen arloan**, gure lehen eguneko zentroa ireki dugu eta Segurako aterpetxea behar hauetarako bereganatu du Departamentuak.

- **Indarkeria matxistaren biktimentzako** plazak bikoiztu egin ditugu.

- **Buruko gaixotasuna edo desgaitasuna+jokaera arazoak** dituzten gazteentzako baliabide berritzaileak sortu ditugu.

5. MAPAREN ADIERAZLEAK

Gipuzkoako mapak baditu bestelako adierazleak, plazen kopuruaz haratago, eta horiek ere hilero neurtzen ditugu Plangintza Atalean. Horregatik, datu hauen eboluzioa emango dugu orain eta ez azken emaitza bakarrik.

Adierazleak hiru zati handitan sailkatu ditugu, sail bakoitza helburu orokor bati dagokiolako eta horrela irakurri eta baloratzeko errazagoa izango zaizuelako.

5.1 Arreta estalduraren unibertsalizazioan aurrera egitea 2021. urterako.

Helburu operatiboak		Adierazleak	2018-2021 Plana		Planaren garapena			
			Hasiera 2017	Helburua 2021	2018	2019	2020	2021
			12	12	12	12	12	12
1.1	Arretaren estaldura	Estaldura orokorra	3,24	4,50	4,07	4,09	3,97	3,94
1.2	Mendekoena	1. mailako artatuak	74,3	74,3	72,6	72,8	73,3	73,2
		2. mailako artatuak	89,6	89,6	88,6	88,3	87,6	87,4
		3. mailako artatuak	92,3	92,3	93,6	93,5	93,7	93,4
1.3	Adinekoena	3. mailako artatuak	92,3	92,3	94,0	94,0	94,1	93,6
1.4	Plazak	Plaza berriak	0	869	291	413	498	559
1.5	Itxarote zerrenda	Adinekoak. Egoitzak	377	200	301	238	330	18
		Adinekoak. Eguneko zentroak	0	0	20	69	30	-36
		Desgaitasuna. Egoitzak	23	10	16	23	39	33
		Osasun mentala. Egoitzak	31	15	52	56	57	51
		Gizarteratzea. Eguneko z.	0	0	9	7	23	26
1.6	Laguntza pertsonala	Laguntza pertsonalaren tasa	35,9	40,0	36,1	38,8	39,9	41,4

Datuak erakusten dute **estaldura orokorra** igo egin dela denbora honetan (biztanleen %3,24tik %3,94raino), baino ez dugu ezarritako helburua lortu. Bestalde, mendekoen estaldura maila gradu bakoitzean mantentzea zen helburua, eta gertatu dena da 3. Gradukoen estaldura igo egin dugula (bai mendeko guztiena bai adinekoena) baina beste bi graduena pixka bat murriztu egin dela.

Itxarote zerrendetan neurtzen duguna hau da: benetako itxaron zerrenda eta zerrenda teknikoaren arteko aldea (plazen %10 hartzen dugu erreferentzia gisa). Ikusten da adinekoen zerbitzuetan helburuak erraz bete direla, baina argi dago hori pandemiaren eragina izan dela. Hala ere, 2019aren amaierako egoera hartzen badugu, esan dezakegu bide onetik gindoazela adinekoen

egoitzetan. Aldiz, bestelako zerbitzuetan helburuak ez dira bete eta zerrendak handitu egin dira neurri handiagoan edo txikiagoan.

Azkenik, **mendekotasun prestazioetan** PEAP eta PECEren arteko proportzioa neurtzen dugu, helburua izanik PEAPen zatia handitzea. Eta hori lortu dugu.

5.2 Gipuzkoako gizarte zerbitzuen sare publikoaren eskaintza egokitzea gizarte premien bilakaerara eta horren lurralde oreka lortzea.

Helburu operatiboak		Adierazleak	2018-2021 Plana		Planaren garapena			
			Hasiera 2017	Helburua 2021	2018	2019	2020	2021
			12	12	12	12	12	12
2.1	Lurralde desoreka	Lurralde desorekaren indizea	6,68	6,00	6,73	6,80	7,50	7,36
2.2	Eraginkortasuna	0/1 mailako adinekoen egoitz.	14,6	5,0	14,5	14,1	15,3	15,0
2.3	Okupazioa	Adinekoak. Eguneko zentroak	94,6	99,0	93,7	94,3	78,4	81,8
		Zentro okupazionalak	92,5	100,0	95,4	92,7	90,7	88,6
		Gizarteratzea. Eguneko zentr.	88,1	90,0	92,6	94,8	95,4	90,9
		Adinekoak. Egoitzak	98,7	99,0	99,0	98,8	87,3	94,5
		Desgaitasuna. Egoitzak	99,8	99,0	99,4	99,6	99,1	97,6
		Desgaitasuna. Etxebizitzak	97,6	99,0	99,3	98,5	97,4	97,6
		Osasun mentala. Egoitzak	98,4	99,0	99,7	96,7	91,1	93,4
		Osasun mentala. Etxebizitzak	98,1	99,0	96,8	85,0	97,3	95,7
		Kronifikatuak. Egoitzak	96,3	99,0	98,8	97,4	93,0	89,3
2.4	Erantzukizun publik.	Gizarteratzea. Egoitzak	98,8	99,0	89,4	88,1	87,8	87,6
		Adinekoak. Egoitzak	87,4	90,0	83,9	85,1	85,0	83,9
		Adinekoak. Eguneko zentroak	89,2	90,0	86,6	85,2	85,5	84,9

Zati honetan lurralde oreka, eraginkortasuna, okupazioa eta erantzukizun publikoa neurtzen ditugu.

Lurralde orekaren adierazleak adineko pertsonentzako baliabideak hartzen ditu bere baitan, eremu bakoitzean Gipuzkoaren bataz besteko estaldura lortzeko helburuarekin. Indize hau gero eta txikiagoa, oreka hobeagoa da. Ikusten denez, indizearen balorea igo egin da, beraz ez dugu lortu helburu hau: atzeraka egin dugu.

Eraginkortasunak adinekoen egoitzetan 0 eta 1 graduko mendekotasuna duten pertsonen %a neurtzen du. Zenbat eta txikiagoa, eraginkortasun handiagoa, pertsona horiek salbuespen bat izan

behar luketelako baliabide hauetan. Ikusten denez, ez da aldaketarik eman proportzio honetan, beraz hau ere ez dugu lortu.

Okupazioari dagokionez, 2021eko datuak tentuz hartu behar dira, hemen ere pandemiak eragina izan du eta. Gizarteratzeko eguneko zentroak dira helburuak bete dituzten bakarrak. Beste baliabide gehienetan gaur egun daukagun okupazioa ohikoa baino baxuagoa da.

Azkenik, **erantzukizun publikoari** dagokionez, adinekoen zerbitzuetan dauden plaza guztietatik zenbat diren publikoak neurtzen dugu, %tan. Gaur eguneko zentroetan %84.9 da, eta egoitzetan %83,9. Bi kasuetan 2017ko datua handiagoa zen (%89,2 eta %87,4, hurrenez hurren).

5.3 Zerbitzuen eta prestazioen kalitatea hobetzea, pertsonen premien araberako arreta egokia eta ahalik eta hurbilekoena bermatzea

Helburu operatiboak		Adierazleak	2018-2021 Plana		Planaren garapena			
			Hasiera 2017	Helburua 2021	2018	2019	2020	2021
			12	12	12	12	12	12
3.1	Itxarote denbora	Adinekoak. Egoitzak	203	183	185	154	168	143
		Adinekoak. Eguneko zentroak	61	55	46	58	108	53
		Desgaitasuna. Egoitzak	370	333	597	491	420	473
		Desgaitasuna. Eguneko zentr.	256	230	352	230	287	280
		Osasun mentala. Egoitzak	114	103	193	228	274	315
		Osasun mentala. Eguneko z.	87	78	67	97	102	73
		Baliabide guztiak	150	135	151	132	156	129
		3. mailakoak	153	138	149	134	163	131
		2. mailakoak	163	147	176	142	168	139
3.2	Jatorrizkotasuna	Guztira	81,0	90,0	80,3	79,3	78,2	77,7
		Adinekoak. Eguneko zentroak	95,5	97,0	96,2	95,8	96,1	95,3
		Desgaitasuna. Eguneko z.	89,6	94,0	89,4	89,4	89,5	88,8
		Osasun mentala. Eguneko z.	89,2	96,0	89,0	87,6	86,8	87,6
		Zentro okupazionalak	72,0	77,0	72,5	71,1	70,3	69,5
		Gizarteratzea. Eguneko zentr.	82,8	86,0	84,8	84,1	82,6	79,7
		Adinekoak. Egoitzak	83,5	89,0	81,6	80,8	79,8	79,7
		Desgaitasuna. Egoitzak	73,4	84,0	76,4	76,1	75,6	75,5
		Desgaitasuna. Etxebizitzak	64,0	96,0	61,0	59,4	60,0	57,6
		Osasun mentala. Egoitzak	66,7	82,0	71,0	70,3	69,5	69,3
		Osasun mentala. Etxebizitzak	48,5	95,0	44,1	42,2	42,1	42,5
		Adingabeak. Egoitzak	34,9	35,0	38,2	32,9	31,3	35,2
		Kronifikatuak. Egoitzak	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
		Gizarteratzea. Egoitzak	73,5	84,0	77,9	74,5	73,8	68,3
		Emakume biktimak. Egoitzak	77,3	90,0	92,9	77,4	80,0	76,0
3.3	Adinekoak etxean Desgaitasuna duten pertsonentzako arreta (egoitzetan eta etxebizitzetan)	> 65 urtekoak. Etxeko tasa	76,3	77,0	75,3	75,3	77,2	75,1
3.4	urte osora zabaltzea	365 eguneko eskaintza	41,2	75,0	79,3	82,7	82,7	83,2
3.5	Desgaituak etxean	Desgaitasuna. Etxeko tasa	81,3	80,0	81,2	81,0	80,7	80,6

Zati honetan itxaron denbora, zentroen jatorrizkotasuna, etxean artatuak daudenen ehunekoa eta desgaitasuneko zerbitzuetan urteko egun guztietan irekiak dauden plazen ehunekoa kontuan hartzen ditugu.

Itxaron zerrendetan ematen den bataz besteko denbora, baliabide guztiak kontuan hartuta, gutxitu egin da (150 egunetik 129ra) eta helburu hau lortu dugu, naiz eta neurri batean hau ere pandemiaren eragina izan den. Azterketa zehatzagoa egin ezkero, emaitza onak adinekoen zerbitzuetan eta buruko gaixotasunentzako eguneko zentroetan daude. Aldiz, desgaitasuneko baliabideetan eta buruko gaixotasunaren egoitzetan atzera egin dugu.

Zentroen jatorrizkotasuna ez dugu hobetu: okerrera egin du edo berdin jarraitu du, salbuespen gutxi batzuekin. Baliabide guztiak kontuan hartuta, beraien jatorrizko esparruan artatuak daudenak %78a dira, eta 2017an %81a ziren.

Etxean artatutakoen tasa pixka bat jaitsi da (adinekoetan %76tik %75era eta desgaitasuna dutenen artean %81etik %80ra).

Azkenik, d**esgaitasuneko zerbitzuak urte osoan irekiak** izatea gure helburu garbia denez, esan dezakegu jauzi handia egin dugula bide honetan, ia bikoiztu egin dugulako horrela lan egiten den plaza kopurua eta 2021erako helburua aise lortu dugulako.

6. LABURBILDUZ

- 2018-2021 aldian 869 plaza garbi sortzea genuen helburua. Eta **559** sortu ditugu, hau da **%64a**. Mapa 2022ra luzatzea erabaki denez, 310 falta dira. Baina kontuan hartuta baliabide batzuetan helburuak gainditu direla eta beste batzuetan ez, azken hauek bakarrik zenbatzen baditugu **442** falta dira, gehienak adinekoen egoitzetan:

FALTA DIREN PLAZEN BANAKETA	
Eguneko zentroak	
Adinekoak-lanegunak	20
Adinekoak-asteb.-jaiegun	1
Osasun mentala	29
Okupazionalak	15
Gizarteratzea	8
Gaueko harrera zentroak	3
Egoitzak	
Adinekoak	273
Desgaitasuna	13
Osasun mentala	59
Bazterkeria	21
	442

- Banaketa hau, ala ere, nahiko teorikoa da. Alde batetik, pandemiaren eraginak zerbitzu batzuen demanda gutxitu egin du eta besteena berriz handitu. Gainera, osasun egoera "normalizatu" arte zaila edo desegokia izango da zerbitzu batzuen estaldura zabaltzea. Azkenik, plaza horietako batzuek lortzeko inbertsioak eta obrak egin behar dira aurretik.

- Adierazleei dagokienean, hauek dira azpimarratzekoak:

    - **Helburuak lortu** dira PEAP/PECE proportzioan, itxaron zerrenden bataz besteko denbora gutxitzean, baliabide batzuen itxaro zerrendetan (baino ez guztietan) eta desgaitasuneko baliabideak egun gehiago irekitzean.

    - **Helburuak ez** dira lortu edo atzera egin dugu lurralde orekan, eraginkortasunean, okupazioan, jatorrizkotasunean eta erantzukizun publikoan.

Gipuzkoako gizarte zerbitzuen 2018-2021 maparen helburuak eta adierazaleak

1.- Arreta estalduraren unibertsalizazioan aurrera egitea 2021. urterako	**1.- Avanzar hacia la universalización de la cobertura de atención para el año 2021**
1.1.- "Arretaren estaldura": Populazioaren arretaren egungo estaldura % mantentzea 2021. urtean Arretaren estaldura osoaren %	**1.1.- Mantener en el 2021 el actual % de cobertura de atención a la población** % de cobertura global de atención.
1.2.- "Mendekoena": Mendekotasun egoeran dagoen populazioaren egungo estaldura % mantentzea 2021. urtean 1. mailako mendekotasuna duten pertsona artatuen %,balioetsitako 1. mailako pertsona guztiekiko 2. mailako mendekotasuna duten pertsona artatuen %, balioetsitako 2. mailako pertsona guztiekiko 3. mailako mendekotasuna duten pertsona artatuen %,balioetsitako 3. mailako pertsona guztiekiko	**1.2.- Mantener en el 2021 el % actual de cobertura de la población en situación de dependencia** % personas con grado de dependencia 1 atendidas/total pers. grado 1 valoradas % personas con grado de dependencia 2 atendidas/total pers. grado 2 valoradas % personas con grado de dependencia 3 atendidas/total pers. grado 3 valoradas
1.3.- "Adinekoena": Mendekotasun handiena duen populazioaren arretaren egungo estaldura % mantentzea 2021. urtean 3. mailako mendekotasuna duten adineko pertsona artatuen %, 3. mailako mendekotasuna duten adineko pertsonak guztiekiko	**1.3.- Mantener en el 2021 el actual % de cobertura respecto a la población con mayor dependencia** % de personas mayores con grado 3 atendidas/total de personas mayores con grado 3
1.4.- "Plazak": Baliabideen eskaintza areagotzea, zehaztutako estaldura helburuen arabera Mapan 2021. urterako zehaztutako plaza berrien kopurua	**1.4.- Incrementar la oferta de recursos de acuerdo con los objetivos de cobertura establecidos** Número de plazas nuevas fijadas en el Mapa para 2021
1.5.- "Itxarote zerrenda": Itxarote zerrendak murriztu eta itxarote zerrenda teknikoen maila mantentzea Zerbitzuetako benetako itxarote zerrenden eta itxarote zerrenda teknikoen (plazen %10) arteko aldea - Adineko pertsonen egoitzak - Adineko pertsonentzako E.Z - Mendekotasuna duten pertsonentzako egoitzak - Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitzak - Gizarteratzeko eguneko zentroak	**1.5.- Reducir las listas de espera y mantenerlas hasta los niveles de listas técnica** Diferencia entre listas de espera real y listas técnicas (10% de las plazas) de los servicios - Residencias Personas mayores - CD Personas mayores -Residencias Discapacidad - Residencias Trastorno Mental - CD Inserción
1.6.- "Laguntza pertsonala": Ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoaren bidez laguntza pertsonala areagotzea Ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoaren onuradunen %, Familia ingurunean zaintzeaga-tiko diru laguntza eta ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa jasotzen duten pertsona kopuru osoarekiko	**1.6.- Aumentar la asistencia personal a través de la PEAP** % de personas beneficiarias de PEAP respecto al total de personas perceptoras de PECE Y PEAP
2.- Gipuzkoako gizarte baliabideen sare publikoko eskaintza egokitzea gizarte premien bilakaerara, eta horien lurralde oreka lortzea	**2.- Adecuar la oferta de la red pública de recursos sociales de Gipuzkoa a la evolución de las necesidades sociales y lograr su equilibrio territorial**
2.1.- "Lurralde desoreka": Adineko pertsonentzako baliabide eskaintzan lurralde desorekak murriztea, eremu bakoitzean Gipuzkoako batez besteko estaldura lortuz adineko pertsonentzako egoitza zentroetako zein eguneko zentroetako plazetan. Eremukako estaldura, adineko pertsonentzako egoitza zentroetako zein eguneko zentroetako plazetan.	**2.1.- Reducir los desequilibrios territoriales en la oferta de recursos para personas mayores, alcanzando en cada una de las áreas, la cobertura media de Gipuzkoa en plazas de centros residenciales y centros de día para personas mayores.** Cobertura por áreas, en plazas de centros residenciales y centros de día para personas mayores.
2.2.- "Eraginkortasuna": Adineko pertsonentzako egoitzetan eraginkortasuna optimizatzea Adineko pertsonentzako egoitzetan artatutako 0 eta 1. mailako mendekotasuna duten pertsonen %, artatutako pertsona guztiekiko	**Optimizar la eficiencia en residencias para personas mayores** % personas con grados 0 y 1 atendidas en residencias para personas mayores sobre el total atendido

2.3.- "Okupazioa": Zentroen okupazioa maximizatzea Adineko pertsonentzako eguneko zentroen okupazio % Desgaitasuna duten pertsonen okupazio % Buruko gaixotasuna duten perts. E.Z.etako okupazio % Zentro okupazionalen okupazio % Gizarteratzeko E.Z.etako okupazio % Adineko perts. egoitzen okupazio % Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzen okupazio % Desgaitasuna duten perts. etxebizitzetako okupazio % Buruko gaixotasuna duten perts. egoitzetako okupazio % Buruko gaixotasuna duten perts. etxebizitz. okupazio % Adingabeentzako egoitzetako okupazio % Egoera kronifikatu perts. gizarteratze egoitz. okupazio % Gizarteratzeko egoitzetako okupazio % Emakumeentzako egonaldi ertainetarako egoitzetako okup. %	**2.3.- Maximizar la ocupación de los centros** % ocupación CD mayores % ocupación CD discapacidad % ocupación CD enf. mental % ocupación centros ocupacionales % ocupación CD inclusión % ocupación RESI mayores % ocupación RESI discapacidad % ocupación VIV discapacidad % ocupación RESI enferm. mental % ocupación VIV enferm. mental % ocupación RESI menores % ocupación RESI incl. cronificada % ocupación RESI inclusión % ocupación RESI mujeres media
2.4.- "Erantzunkizun publikoa": Erantzukizun publiko maila handia Plaza propioen edo itunduen %, adineko pertsonentzako zentroetan baimendutako plaza kopuru osoarekiko	**2.4.- Mantener un elevado nivel de responsabilidad pública** % de plazas propias o concertadas respecto al total de plazas autorizadas en centros para personas mayores
3.- Zerbitzuen eta prestazioen eskaintzaren kalitatea hobetzea, pertsonen premien araberako arreta egokia, ahalik eta hurbilekoena bermatzeko	**3.- Mejorar la calidad de la oferta de servicios y prestaciones para garantizar una atención adecuada a las necesidades de las personas y lo más próxima posible a su entorno**
3.1.- "Itxarote denbora": Itxarote zerrendan dauden pertsonen batez besteko itxarote denbora murriztea. Batez besteko egun kopurua (azken hamabi hilabetetan zehar zentroetan sartu diren pertsonenak): Adineko pertsonentzako egoitzak Adineko pertsonentzako eguneko zentroak Desgaitasuna duten perts. egoitzak Desgaitasuna duten perts.E.Z. Buru osasuneko egoitzak Buru osasuneko eguneko zentroak Baliabide guztien batezbestekoa 3. mailako mendekotasun balioespena duten pertsonak 2. mailako mendekotasun balioespena duten pertsonak	**3.1.- Reducir el tiempo medio de las personas en las listas de espera.** Días de tiempo medio (de las personas que han entrado en centros durante los ultimos 12 meses): Residencias personas mayores Centros de día personas mayores Residencias discapacidad Centros de día discapacidad Residencias salud mental Centros de día salud mental Media de todos los recursos Personas con BVD Grado 3 Personas con BVD Grado 2
3.2.- "Jatorrizkotasuna": Jatorrizko lurralde eremuetan artatutako pertsonen proportzioa areagotzea Jatorrizko esparruetan artatutako pertsona %: Adinekoentzako eguneko zentroetako % Desgaitasuna duten pertsonentzako E.Z.etako % Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako E.Z.etako % Zentro okupazionaletako % Gizarteratzeko Eguneko Zentroetako % Adinekoentzako egoitzetako % Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzetako % Desgaitasuna duten pertsonentzko etxebizitzetako % Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitzetako % Buruko gaixotasuna duten perts. etxebizitzetako % Adingabekoentzako egoitzentzako % Egoera kronifikatua duten perts. gizarteratze egoitz. % Gizarteratzeko egoitzetako % Emakumeentzako egonaldi ertainetarako egoitzetako %	**3.2.- Aumentar la proporción de personas atendidas en sus ámbitos territoriales de origen** % personas atendidas en sus ámbitos de origen: % CD mayores % CD discapacidad % CD enfermedad mental % centros ocupacionales % CD inclusión % RESI mayores % RESI discapacidad % VIV discapacidad % RESI enferm. mental % VIV enferm. mental % RESI menores % RESI inclus cronificada % RESI inclusión % RESI mujeres media
3.3.- "Adinekoak etxean": Arreta premiak dituzten adineko pertsonei etxean geratzen laguntzea Beren etxean bizi diren > 65 urteko artatutako pertsona %, zerbitzu guztietan artatutako adineko pertsona guztiekiko	**3.3.- Favorecer la permanencia en su domicilio de las personas mayores con necesidades de atención** % de personas > 65 años atendidas que residen en su domicilio/total de personas mayores atendidas en todos los servicios
3.4.- "Urte osoa": Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzetan eta etxebizitzetan arreta urte osora zabaltzea Urte osoan irekiak dauden plaza %, plaza guztiekiko	**3.4.- Ampliación de la atención en centros (residencias y viviendas) para personas con discapacidad a todos los días** % plazas abiertas durante todo el año / total de plazas
3.5.- "Desgaituak etxean": Arreta premiak dituzten pertsona desgaituei etxean geratzen laguntzea Beren etxean bizi diren eta desgaitasuna duten artatutako pertsonen %, zerbitzu guztietan artatutako pertsona desgaitu guztiekiko	**3.5.- Favorecer la permanencia en su domicilio de las personas con discapacidad con necesidades de atención** % de personas con discapacidad atendidas que residen en su domicilio/total de personas con discapacidad atendidas en todos los servicios